

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Hur

LEIOAKO CAMPUSAREN baratzean dagoen hilerri berezian, ikerketarako emandako gorpuen behin-betiko tokian, *Olea europaea* olibondo arrotzaren ordez zer jarriko nukeenaren zalantza bueltaka dabilkit. Kaskoa argitze aldera, hilerriak bisitatu besterik ez dago. Gehienetan kristauen jasak ekarri zuen altzifre edo nekosta mediterraniarra (*Cupressus sempervirens*) da nagusi. Ohikoak dira, baita ere, bera zelakoan aldatu-



Haginaren (*Taxus baccata*) ikurra uztarri batean, oraindik ere gaur egun jartzen den eran.



JAKOBA ERREKONDO

tako tankerako beste konifero ugari: zedroak (*Cedrus* spp.), tuiak (*Thuja* spp.), zedro japoniarrak (*Cryptomeria japonica*), izeiak (*Abies* spp., *Picea* spp. edo *Pseudotsuga* spp.)... Urte puska batean ukitu ez diren hilerrietan bestelakoa da baratzea. Aranokoan izan naiz gaur bertan eta han dago ez dakit zenbat urte pilatua izango duen hagina, *Taxus baccata*.

Hagina izan beharko litzateke bai gure hilerrietako etxezaina, ama, amona, birramona, amandrea, amabitxia, ama pontekoa, ama besoetakoa... Hil ondorenean gure gorputzak sortzen duen bizitza guztia-aren amatzakoa. Hagina izan da geurean babesa, luze bizi eta etengabeko biziberritzearen ikurra. Pozoitsua, ebakitakoa egur gorriak odola dariola dirudi, zura onenetakoa, milaka urte bizi dena... Gure ikur zaharretakoa dela uste dut.

Ez da bakarria, ordea. Gure kulturak badu bizitzaren betikotasunari eusteko landare mitikotik: intsusa (*Sambucus nigra*), haritza (*Quercus robur*), elorri zuriak (*Crataegus* spp.)... Hilerriera bizitzaren ikurra eramatekotan pare bat azpimarratu nahi dut, baina: hurritza, *Corylus avellana*, eta lizarra, *Fraxinus excelsior*.

Milaka urte askotan gure kulturaren euskarri izan da hurritza. Ugarietan ugaria, bakulu-makila, eraikuntza gai, urteko sasoi guztietarako jaki... Hurritzaren hur hitz hori ez al dugu zaharren artekoa? Ea bateren batek argitzen digun...

Lizarrarenak beste batean beharko du, kabitu ere egin behar baita.

**azkonobieta**  
basogintza lanak

baso-berritzeak  
kimatze lanak  
abereentzako itxiturak

☎ 943 694 554 / 656 720 607  
Goiballara - Azkonobieta Berri z/g  
20159 Asteasu (Gipuzkoa)